

KONTROL MOZIOA

dBUS-EKO TARIFAK DIRELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko apirilaren 10ean Gune Publikoko Batzordean aztertutako “Mugi eta Interoperatibitatea” interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailean dBusen 45. lerroan hasitako BAT (Araba) eta BARIK (Bizkaia) txartel bidezko ordainketa aukera konpainiaren gainontzeko lineetara zabaldu zen duela gutxi, autobusen ordaintze-makina guztiak egokituta. Erkidegoan mugikortasunerako txartel eta sistema bakarra edukitzeko bidean, aurrerapauso handia da zalantza gabe, baina interoperatibitate sistema honek desberdintasun egoera deigarri bat eragin du: izan ere, BAT eta BARIK txartela duten herritarrek MUGI anonimoa dutenek baino gutxiago ordainduko dute dBusen lineak erabiltzeagatik. Apirilean tarifa berriak indarrean sartu diren honetan, hurrenez hurren, 0,93€ (% 45eko deskontua) eta 1,15€ (% 32ko deskontua).

Hori dela eta, hainbat kexa jaso ditugu donostiarren aldetik. EH Bildutik ez dugu zalantzan jartzen neurriak hartu behar direla MUGI anonimoa murriztu eta MUGI arrunta edo pertsonala sustatzeko, baina horrek ez luke suposatu behar inondik inora donostiarrek bizkaitarrek edo arabarrek baino garestiago ordaintzea dBuseko zerbitzuen truke. Aipatzekoa da, gainera, 2016. urteko memoriaren arabera, dBusen urtean egindako 28,5 milioi bidaien % 12,73 (3,6 milioi bidai) MUGI anonimoaren bitartez egin direla; beraz, desberdintasun honen ondorioz kaltetutako donostiarrak asko izan daitezke. GGLA-k aitortzen duen bezala, txartel anonimoa egokia da taldeentzat; ikastetxeak, enpresak... izan daitezkeen bezala.

Donostiako Udala dBusen jabe da eta Udal-gobernuko ordezkarien bitartez Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzaren kide ere bai, eta ondorioz, badugu ardura egoera honetan.

Apirilaren 10eko batzordeetan, gaiaz galdetuta, Udal-gobernutik honako hau erantzun zitzaigun geure harridurarako: erabakia, interoperatibitate hitzarmenean paktatutakoaren baitan, Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzan hartu zela eta MUGI anonimoaren erabiltzaileek BAT eta BARIK anonimoaren erabiltzaileek bezainbeste ordaintzen dutela. Horrez gain, adierazi zitzaigun erabaki horiek guztiak MUGI txartela sustatzea dutela helburu eta, edozein kasutan, BAT eta BARIK anonimoak ez direla izatez, anonimoak.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Egun hauetan, ordea, egiaztatu dugu, txartel horien web-orriak eta zerbitzu-eskaintzak kontsultatuta, batetik, BAT orokor anonimoak eta BARIK anonimoak izan-badirela eta indarrean jarraitzen dutela ondoko ezaugarriekin: txanpon-txartel eskualdagarri zuriak dira, datu pertsonalik eta argazkirik gabeak, eta BARIK-en kasuan gehienez ere 10 lagun elkarrekin bidaiatu daitezke. Bestetik, frogatu dugu arabar eta bizkaitarren BAT eta BARIK anonimoaren erabiltzaileek 0,93 € ordaintzen dutela dBuseko lineak erabiltzearen truke eta MUGI anonimoa duten donostiarrek eta gipuzkoarrek, ordea, garestiago (1,15€ ordaindu behar dute). Izan ere, BAT eta BARIK anonimoaren tarifak MUGI pertsonalizatuaren lehen tarteko (1-20) tarifaren baliokide izateko erabaki politikoa hartu zen.

Esandakoagatik, hartutako erabaki horiek, MUGI txartela sustatzea baino, anonimoa duten donostiarrek BAT eta BARIK txartel anonimoak erosi eta erabiltzea sustatzen dutela uste dugu, Donostian bidaiatzea merkeago ateratzen baitaie; egoera ilogikoa eta kontrajarria aipatutako helburuekin alderatuta. Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ahalik eta epe laburrenean aurkez dezala proposamen bat Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzan, MUGI anonimoa duten donostiarrek ez dezaten BARIK eta BAT-en txartel anonimoa duten herritarrek baino tarifa garestiagoa ordaintzen jarrai, dBuseko udal zerbitzu eta lineak erabiltzearen truke.

Donostian, 2017ko apirilaren 12a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia